



ERTZAINTZAK DONOSTIAKO HIRITARREI EMATEN DION ZERBITZUARI HERRIZAINGO SAILAK EGITEN DUEN DESTAINA ELA ERTZAINTZAK SALATZEN DU

Donostiako hiri segurtasunaz Ertzaintzak ardura hartu zuenetik **Amara auzoan topoaren geltokian** Herrizaingo Sailak duen instalaziotan salaketak jaso izan du.

Gerora hantxe bertan ipini zen, baita ere, **etxeko eta genero indarkerien biktimentzako arreta zerbitzua, hain zuzen ere, eskaintzen zuen diskrezioa eta erdiguneko kokapenagatik eta hiritarrenganako hurbiltasuna dela-eta egokia zelako.**

Orain Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Azpiegitura Sailak, **Ernesto Gasco sailburuordea** delarik, eta Donostiako Udaleko Mugikortasun eta Segurtasun zinegotzi ordezkaria izanak, instalazio hauek beste zeregin batzuetarako hartu nahi ditu, gure ustez, arestian esan den bezala hiritarren eskubideen babesa eta hiri segurtasun eta etxeko eta genero indarkerien biktimen arreta bezainbesteko lehenatasunezko eta funtsezko ez diren beste zerbitzu batzuk emateko.

PSEren interes bere-berezko eta alderdikoeiak, zehazki Ernesto Gascorena, hiritarrak ahal bezainbesteko arreta ona jasotzeko eskubidearen aurretik jartzen dira. Aldaketa hauek, alde betetik, **ahal den lekurik gutxien ematen** die salaketak jasotzeko herritarren arretarako arloari, eta bestalde, **etxeko eta genero indarkerien kasuetarako arreta arloa Amarako instalazioetatik Ondarretarko Ertzain-etxera eramaten du.**

Gainera honek ekarriko du Donostiako Ertzain-etxearen handitze lanetarako gastu gehiago behar izatea, eta orainarte bertan dauden lekuen berregokitzapena, lehendik ere nahikoa ez diren lekuak izanik gainera.

Hau guztiagatik, **ELA Ertzaintzak exijitzen du:**

- **Egitasmo honen berehalako gelditzea**, Gasco Jaunaren gutizi pertsonala besterik ez dena eta beharrezkoak ez diren gastuak eragingo dituen, eta baita ere, hiritarrei eta Ertzaintzaren lanari kalteak.
- Hiritarren zerbitzua ematea izan dadila interes alderdikoi eta pertsonalen aurretik ipinia, beraz, **salaketa jasotzeko lekua eta tratu txarren biktimei arreta ematekoa orainarteko leku berean jarrai daitezela.**

Donostian, 2012 ko urtarrilaren 9 an